

Javier Arbilla

Val de Ollo desde Garaño / *Ollaran, Garañotik*

## El Valle de Ollo

El Valle de Ollo o Val de Ollo es un municipio compuesto por los concejos de Anotz, Arteta, Egillor-Beasoain, Iltzarbe, Ollo (capital), Saldise, Senosiain y Ultzurrun. Tiene una población de 409 habitantes (datos de 2015).

A una distancia de 15-20 km de Pamplona, se ubica en una hondonada abrazada por cordales montañosos, últimas estribaciones de la Sierra de Andia, y recorrida por los ríos Arakil y Udarbe. Su situación geográfica y el accidentado relieve que presenta, hacen posibles una gran variedad de ambientes naturales: hayedos en las zonas altas, carrascales o encinares, vegetación de ribera y, sobre todo, robledales.

## *Ollaran*

*Ollaran kontzeju hauek eratzen dute: Anotz, Arteta, Beasoain-Egillor, Iltzarbe, Ollo (hiriburua), Saldise, Senosiain eta Ultzurrun. 409 biztanle bizi dira bertan (2015eko datuak).*

*Iruñetik 15-20 kilometrora, mendietako gailur-lerroek, Andia mendilerroko azken adarrek, besarkatutako sakongune batean dago, eta Arakil eta Udarbe ibaiak ibiltzen dira bertan. Duen kokaleku geografikoak eta erliebe malkartsuak ekartzen du natura giro askotarikoak egon ahal izatea: pagadiak eremu garietan, garrigak edo artadiak, ur bazterreko landaredia eta, batez ere, hariztiak.*



Javier Arbilla

Manantial de Arteta / *Artetako Iturburua*




Mikel Madoz

Entrada al manantial / *Artetako Iturburua*

## El Manantial de Arteta

El agua ha sido y es un elemento vital en la historia y el desarrollo de Val de Ollo. La importancia de sus aguas trasciende al propio Valle, ya que abastece a la Comarca de Pamplona a través de un complejo de infraestructuras: las instalaciones de captación del Manantial de Arteta, las conducciones y la Estación de Tratamiento de Egillor.

El Manantial o Nacedero de Arteta está situado a la salida de un espectacular desfiladero de paredes calizas. Se trata de una surgencia natural del gran acuífero que forma la Sierra de Andia, con un caudal medio de 3.000 l/s. Todo el proceso de abastecimiento está gestionado por la Mancomunidad de la Comarca de Pamplona. En la entrada al Manantial hay un Centro de Información y Educación Ambiental (cerrado provisionalmente, hasta nuevo aviso).

## *Artetako Iturburua*

*Ollaranen historian eta garapenean, ura funtsezko elementua izan da eta da. Dena den, bertako uraren garrantzia Haranetik harago doa, azpiegituren konplexu baten bidez, Iruñerria urez hornitzen baitu: Artetako iturburuan ura hartzeko dauden instalazioak, hodiak eta ura tratatzeko Egillorren dagoen estazioa.*

*Artetako iturburua edo sorburua kareharrizko pareten haitzarte ikusgarri baten irteeran dago. Andia mendilerroan dagoen akuifero edo ur geruza handiaren irteera natural bat da, eta haren batez besteko emaria segundoko 3.000 litrokoa da. Hornidura prozesu osoa Iruñerriko Mankomunitateak kudeatzen du. Iturburuaren sarreran, Ingurumen Informaziorako eta Heziketarako Zentroa dago (itxita dago behin-behinean, beste abisurik eman bitartean).*

## Puntos de interés / *Toki interesgarriak*

**IGLESIAS**. Se localizan en todos los cascos urbanos. Son edificios modestos pero cuidados, de bella estampa, y que han marcado la vida cotidiana de los pueblos.

***ELIZAK**. Herrigune guztietan daude. Eraikin xumeak eta apalak dira, baina ongi zainduta daude eta itxura ederrekoak dira. Herrien eguneroko bizimoduan eragina izan dute.*



Javier Arbilla

Ermita de Donamaria / *Donamariako ermita*

**ERMITAS**. Son numerosas en el valle. Destaca por su historia la de Donamaria, en Ollo, de estilo románico, que sirvió en tiempos pasados como sede del batzarre (reunión de vecinos). Actualmente se encuentra en proceso de restauración.

***ERMITAK**. Ugari daude. Bere historia kontuan hartuta, Donamariakoa nabarmendu behar da, Ollon. Estilo erromanikokoa da eta garai batean batzarrak egiteko baliatu zuten. Egun, zaharberritzen ari dira.*

**ARQUITECTURA CIVIL**. En todos los pueblos se pueden admirar imponentes casas, bellos ejemplos de arquitectura rural, construidas muchas de ellas en el siglo XVIII.

***ARKITEKTURA ZIBILA**. Herri guztietan daude sekulako etxeak, landako arkitekturaren adibide ederrak. Hain zuzen, haietako asko XVIII. mendean eraikitakoak dira.*



Javier Arbilla

Casa Cerero, antiguo palacio (Ollo) / *Cerero etxea, jauregi izandakoa*

**LAVADEROS**. Testigos del duro trabajo cotidiano de las mujeres del Valle, varios de ellos han sido restaurados.

***GARBITEGIAK**. Haraneko emakumeen eguneroko lanaren lekuko ezin hobe, haietako zenbait zaharberritu egin dituzte.*

**EL PUENTE MEDIEVAL** de Iltzarbe, sobre el río Udarbe, fue punto clave en las comunicaciones del Valle. En Anotz queda otro, pero está muy reformado.

***ILTZARBEKO ERDI AROKO ZUBIA.** Udarbe ibaiaren gainean, giltzarria izan zen Haraneko komunikazioetan. Anotzen bada beste bat, baina eraberritze asko izan ditu.*



Javier Arbilla

Puente medieval de Iltzarbe, sobre el río Udarbe.
*Iltzarbeko zubia, Erdi Arokoa, Udarbe errekaren gainean.*




Elur Ulibarrena

Museo Etnográfico de Arteta
*Artetako Museo Etnografikoa*

**EL MUSEO ETNOGRÁFICO DE ARTETA** es un gran caserón del siglo XVII (Fantikorena) donde se recopilan más de 5.000 piezas de muy diversa índole y época Su fundador y propietario es José Luis Ulibarrena Arellano. Entrada gratuita.

***ARTETAKO MUSEO ETNOGRAFIKOA**. XVII. mendeko etxetzar handi bat da (Fantikorena). Askotariko izaera eta garaitako 5.000 pieza baino gehiago daude bertan. Sortzailea eta jabea José Luis Ulibarrena Arellano da. Sarrera doakoa da.*

**LAS SALERAS DE ARTETA** son unas instalaciones muy antiguas donde tradicionalmente se ha obtenido sal a partir del agua que mana de un pozo. En su mayoría están abandonadas, pero recientemente se ha restaurado el pozo y parte del recinto, donde todavía se realiza el proceso. Una bella y corta excursión señalizada desde el Manantial de Arteta (Paseo de las Saleras, 1,6 km ida y vuelta) es la forma más atractiva de llegar a ellas.



Mikel Madoz

Saleras de Arteta / *Artetako gatzagak*

***ARTETAKO GATZAGAK** aspaldiko instalazioak dira, eta bertan tradizionalki gatza eskuratu izan dute, putzu batetik ateratzen den uretik. Gehienak utzita badaude ere, duela gutxi putzua berritu da eta esparruaren zati bat, eta bertan prozesua egiten da oraindik. Haietara iristeko modu erakargarriena da artetako iturburutik abiatzen den txango eder eta labur bat (Gatzagetako paseoa, 1,6 kilometro joan eta etorri), seinaleztatuta dagoena.*

## Puntos de interés / *Toki interesgarriak*



Vista aérea de Garaño / *Garañoren airetiko ikuspegia*

**EL CASTILLO DE GARAÑO** es una antigua fortaleza medieval del Reino de Navarra que corona un cerro estratégico a la entrada del valle. En los últimos años, las excavaciones están sacando a la luz imponentes vestigios de este patrimonio olvidado durante siglos. Las propias ruinas y la belleza de las vistas hacen muy recomendable la visita al lugar, a través de un agradable paseo.

Desde Egillor (1,8 km) o desde Saldise (2,8 km), basta tomar el camino de la Vuelta al Valle y al llegar al collado bajo el cerro, seguir las indicaciones. También se encuentra señalizado desde el puente de Anotz (1,9 km).

***GARAÑOKO GAZTELUA** Erdi Aroko gotorleku zahar bat da, Nafarroako Erresumakoa, Haranera sartzeko muino baten gailurrean dagoena. Azken urte hauetan, induskatze lanen bidez, hainbat mendean ahaztuta egon den ondare honen sekulako aztarnak ari dira ateratzen. Hartara, kontuan hartuta hondakinak eta handik dagoen ikuspegiaren edertasuna, oso gomendagarria da bertara joatea, paseo atsegin bat eginez.*

*Egillortik (1,9 km) edo Saldisetik (2,8 km) abiatuta, nahikoa da Ollarango Itzuliko bidea hartzea eta muinoaren azpiko leporaino iristea, seinaleei jarraitzea. Anozko zubitik ere seinaleztatuta dago (1,9 km).*



Mikel Madoz

Arteta, Senosiain y Ollo / *Arteta, Senosiain eta Ollo*



Javier Arbilla

Txargain

**OTROS PASEOS**. Además de la Vuelta al Valle, existen en la zona numerosas posibilidades de recorridos, algunos tan clásicos como las ascensiones al Txurregi y Gaztelu desde Iltzarbe u Ollo, la del Mortxe desde Egillor o la breve excursión al Txargain. Frecuentadas también son las rutas al Centro de Euskal Herria desde Senosian y la Vuelta a la Comarca de Pamplona (GR 220).

En el Manantial de Arteta hay opciones de paseos suaves señalizados, como el citado Paseo de las Saleras o el circuito Manantial-Ultzurrun-Arteta- Manantial.

**Bicicleta**. La Vuelta al Valle es apta para Btt, con una dificultad moderada, siendo recomendable realizar el tramo entre Iltzarbe y Anotz en dicho sentido. Los puertos de Ultzurrun y Goñi hacen las delicias de los ciclistas de carretera.

***BESTE PASEO BATZUK.** Ollarango Itzuliaz gain, inguru honetan ibilbideak egiteko aukera asko dago. Ibilbide horietako batzuk klasikoak dira, hala nola Txurregira eta Gaztelura igotzea Iltzarbetik edo Ollotik, Mortxera igotzea Egillortik edo Txargainera txango laburra egitea. Maiz egiten diren beste ibilbide batzuk dira Senosiaindik Euskal Herriaren Erdigunera egiten dena eta Iruñerriko Itzulia (GR 220).*

*Artetako iturburuan seinaleztatuta dauden paseo errazak egiteko aukera dago, besteak beste, lehenago aipatu den Gatzagetako paseoa eta Iturburua-Ultzurrun-Arteta-Iturburua zirkuitua.*

***Bizikleta**. Ollarango Itzulia egokia da mendiko bizikletaz egiteko. Zailtasun neurritsua du, eta komeni da Iltzarbe eta Anotz arteko zatia egitea, noranzko horretan. Ultzurrungo eta Goñiko mendateak, berriz, ezin hobeak dira errepideko txirrindularientzat.*

## Medio natural y rural / Natura eta landa ingurunea



Roble trasmocho / *Haritz lepatua*

El paisaje de Ollo está dominado por montañas pobladas de bosques y pastos, con un fondo de valle cultivado en el que se asientan los pequeños pueblos. El medio natural actual es el resultado de la interacción humana secular. En los bosques, el uso humano ha dejado su huella en los grandes árboles trasmochos que hoy se pueden admirar. Los rasos de la sierra de Andia, pastoreados desde antiguo, eran el objetivo de los rebaños que llegaban por la cañada “Pasada de Ollo”; una actividad, la ganadería extensiva, que pervive en la actualidad.

Robledales, hayedos, roquedos, ríos, cultivos, etc, son los hábitats de una gran variedad de especies de fauna, de las que resultan especialmente fáciles de observar las aves rapaces: buitre, alimoche, milano real, águila real, quebrantahuesos…



Alimoche / *Sai zuria*

*Ollarango paisaian basoz eta bazkalekuz betetako mendiak dira nagusi, eta haranaren behealdean lur landuak eta herri txikiak daude. Egungo natura ingurunea gizakiok hainbat mendetan izandako interakzioaren emaitza da. Basoetan, giza erabilerak aztarna utzi du egun ikus daitezkeen zuhaitz lepatu handietan. Andia mendilerroko lauguneetan antzinatik ibili ziren artaldeak, “Ollarango igarobidea” abelbidetik iristen ziren artaldeen helburu. Nekazaritza estentsiboa bizirik dago egun.*

*Hariztiak, pagadiak, harkaiztiak, ibaiak, lur landuak eta abar animalia espezie ugariren habitatak dira. Espezie horien artean, ikusten errazak dira hegazti harrapariak: saiak, sai zuriak, miru gorriak, arrano beltzak, ugatzak…*

## Vuelta a Val de Ollo / Ollarango itzulia

**PR-NA 170**

La Vuelta a Val de Ollo es un itinerario circular señalizado que pasa por todos los pueblos del valle. Se puede iniciar el recorrido en cualquiera de sus nueve cascos urbanos o en el Manantial de Arteta. Es una ruta de trazado suave, apta para todos los públicos. Se puede recorrer en su totalidad o realizar circuitos más cortos, aprovechando los enlaces.

*Ollarango itzulia seinaleztatuta dagoen ibilbide zirkular bat da, Haraneko herri guztietatik igarotzen dena. Bederatzi herriguneetako edozeinetan edo Artetako iturburuan has daiteke ibilbidea. Ibilbide leuna eta erraza da, egokia adin guztietako ibiltarientzat. Osorik egin daiteke edo zirkuitu laburragoetan, lotura bideak baliatuta.*

Perfil del recorrido. Longitud: 18,8 km. (horario aprox.: 5 h.) Desnivel total acumulado: 480 m.
*Ibilbidearen profila. Luzera: 18,8 km. (iraupena: 5 ordu inguru) Batez besteko igoera: 480 m.*




### Más información / Argibide gehiagotarako

- Ayuntamiento de Val de Ollo: 948 32 80 24
  www.ollo.es
- Manantial de Arteta y Saleras: 948 42 32 42
  www.mcp.es/actividades/centros-informacion/manantial-de-arteta
- Museo etnográfico de Arteta: 948 32 80 34
  www.museoetnograficoarteta.esy.es

Ayuntamiento de Val de Ollo

Manantial de Arteta

Museo Etnográfico de Arteta







## Leyenda / *Argigarriak*

- Curvas de nivel. *Equidistancia 10 m.* / *Sestra-kurbak. Distantziakidetasuna 10 m.*
- Vértice geodésico / *Erpin geodesikoa.*
- Cima destacada / *Gailur nabarmendua.*
- Límite de Val de Ollo / *Ollarango muga.*
- Carretera / *Errepidea.*
- Pista.
- Ferrocarril / *Trenbidea.*
- Balsa / *Baltsa.*
- Río / *Ibaia.*
- Barranco / *Erreka.*
- Fuente / *Iturria.*
- Puente / *Zubia.*
- Núcleo urbano / *Herria.*
- Construcción / *Eraikuntza.*
- Cementerio / *Hilerria.*
- Ermita / *Baseliza.*
- Puente medieval / *Erdi Aroko zubia.*
- Castillo (ruinas) / Gaztelua (hondakinak)

Escala /*Eskala*

0 — 500m — 1km

| -450 | 450-550 | 550-700 | 700-900 | +900 |
|---|---|---|---|---|

## Señalización / *Seinaleak*

Continuidad de sendero / *Bidea nondik jarraitu*

Dirección errónea / *Okerreko bidea*

Cambio de dirección / *Norabide aldaketa*




Poste direccional
*Norabide zutoina*



Mojon
*Zutoina*

Panel de inicio
*Argibide panela*

## Recomendaciones / *Gomendioak*

- Por favor, sea respetuoso con todo lo que encuentre a su paso.
- No deje ningún tipo de basura: deposítela en los contenedores.

- *Mesedez, zaindu ezazu bidean aurkitzen duzun gauza oro.*
- *Ez bota zaborrik. Utzi zaborrak zaborrontzietan.*

948 42 32 42
www.mcp.es
www.ollo.es

Mancomunidad Comarca de Pamplona
Iruñerriko Mankomunitatea

Ayuntamiento de Val de Ollo
Ollarango Udala

Papel ecológico
Paper ekologikoa

DL NA 2149-2016. 4ª edición 2016




## Paseos en el Valle de Ollo / *Ollarango ibilbide seinaleztatuak*

- **Vuelta a Val de Ollo** / *Ollarango Itzulia*
- **Caminos de enlace** / *Lotura-bideak*
- **Paseos señalizados** (Garaño y Saleras) / *Paseo seinaleztatuak (Garañokoa eta Gatzagetakoa)*
- **Rutas montañeras** / *Mendiko ibilbideak*
- **Cañada** "Pasada de Ollo" / *"Ollarango igarobidea" abelbidea*

## El valle tranquilo

A pocos kilómetros de Pamplona, al abrigo de la vertiente oriental de la Sierra de Andia, se sitúa un lugar de pueblos pequeños y cuidados, de montañas que marcan el paisaje de la Cuenca, de viejos bosques y de aguas puras: Val de Ollo.

Recogido entre montañas, parece querer esconderse del estrépito de la vecina ciudad y conservar el sosiego que siempre ha tenido. Así lo podemos sentir paseando por las breves calles de sus pueblos o por los escondidos senderos.

Muchas son las formas de visitar y conocer este valle, y para algunas no nos hará falta alejarnos del coche. Sin embargo, si queremos disfrutar de su naturaleza y descubrir los bellos rincones que alberga, debemos caminar por los antiguos caminos que atraviesan bosques y campos, cruzan ríos, visitan ermitas... y unen los pueblos. Para facilitar este propósito, tanto a los visitantes como a los propios vecinos, el Ayuntamiento de Val de Ollo ha acondicionado un itinerario señalizado que une los pueblos del Valle, apto para todos los públicos, además de editar el presente mapa-guía.

A todo el que desee compartir y respetar esta tranquilidad ¡Bienvenido!

## *Haran lasaia*

*Iruñetik kilometro gutxira, Andia mendilerroaren ekialdeko isurialdearen babesean, herri txiki eta zainduak dituen toki bat dago, Iruñerriko paisaia markatzen duten mendiena, baso zahar eta ur garbiena: Ollaran.*

*Mendi artean bildurik, badirudi hurbil dagoen hiriko zalapartatik aldendu eta betidanik izan duen baretasunari eutsi nahi diola. Izan ere, hori sentitzen dugu, herrietako kale laburretan edo ezkutuan dauden bidexketan paseoan ibiltzen bagara.*

*Haran hau bisitatu eta ezagutzeko modu asko daude, eta horietako zenbaitetarako autoa beharko dugu. Bertako naturaz gozatu eta dauden txoko ederrak ezagutu nahi baditugu, ordea, basoetan eta soroetan zehar igarotzen diren, ibaiak gurutzatzen dituzten, ermitak bisitatzen dituzten…eta herriak lotzen dituzten bide zaharretan ibili behar dugu. Helburu hori errazteko bai bisitariei eta bai herritarrei ere, Ollarango Udalak seinaleztatuta dagoen ibilbide bat egokitu du, Haraneko herriak batzen dituena eta adin guztietako paseatzaileentzat aproposa dena. Eta horrez gain, mapa-gida hau eman du argitara.*

*Ongietorria izan dadila lasaitasun hori konpartitu eta errespetatu nahi duen oro!!*